# 2.1 GAIAREN AURKEZPENA

## > Euskal Herria

### - Bideoa

**Helburuak**

– Gaiari hasiera ematea.
– Umeek euren herrialdearen deskripzioa egiten ikasteko eredu bat jasotzea.
– Joxerekin harremanetan egotea.

**Prozedura**

– Lehenik eta behin, Joxek zerbait bidali diela esan.
– Gai berri bat dela azaldu.
– Joxek bidalitako bideoa ikusi.
– Bideoan ikusitakoa umeekin komentatu.
– Joxek egindakoa egiten ikasiko dutela esan.

**Oharrak**

– Nahikoa da bideoa behin ikustea.
– Umeei argi esan hori izango dela hurrengo lana: euren herrialdea aurkeztea.
– Gaiaren lanketarekin bukatzean, berriz ikus daiteke bideoa, umeek zenbat ikasi duten ikusi eta euren burua baloratzeko.